

# ZERBITZUA ERABILTZEKO BALDINTZAK

## BALDINTZA OROKORRAK

### GERALEKUAN

- Itxaron autobusari geralekuan edo markesinan. Adierazi igotzeko asmoa duzula.
- Prestatu txartela/eskudirua.
- Ibilgailua beteta badago, ez igo autobusera

### SARRERA

- Sarrera orokorra aurreko atetik.
- Errespetatu sartzeko txanda.
- Itxaron ibilgailua gelditu arte.
- Ordaindu edo baliozkotu garraio-titulua, eta gorde ibilbidea amaitu arte.
- 6 urtetik beherakoek ez dute bidaia-txartelak eraman behar. 18 urtetik beherakoek heldu batekin bidaiatu behar dute, edo, bakarrik joatekotan, Lurraldebus/Mugi txartel pertsonalizatua eraman behar dute.

### BIDAIA

- Ez oztopatu ibilgailuaren barruan ibiltzeko lekua, heldu ongi eta, ahal bada, jar zaitez irteerako ateetatik hurbil.
- Errespetatu eserleku-erreserbak eta lehentasunez okupatzeko espazioak.
- Behar bezalako aurrerapenarekin jakinarazi geldialdia egin nahi duzula, eta jaitsi horretarako gaitutako ateetatik.



### Mugikortasun urriko pertsonak

- Eserlekuak eta espazio erreserbatuak erabiltzeko lehentasuna.



### Gurpil-aulkiak eta ibilgailu homologatuak

- Ahalik eta segurtasunik handiena bermatuz eta aplikatzekoa den araudiaren arabera sartu beharko dira.
- Gehienez ibilgailu bakoitzeko 1, fitxa teknikoaren zehaztapenen arabera.
- Erosotasunik handiena ematen dien eta ahalegin fisiko txikiagoa eginarazten dien atetik sartu eta jaitsi daitezke.
- Ibilgailuaren martxaren noranzkoarekiko aurrerantz edo atzerantz kokatuta, kasuaren arabera, betiere freno jarrita.



### Animaliak

- Hauek dira ibilgailuen barruan sartzeko baimena duten lagun egiteko animaliak: espezie eta ezaugarri guztietako txakur eta katuak, arriskutsuak izan daitezkeenak izan ezik.
- Baimendutako animaliak garraiatzeko baldintzak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren araudiaren 21. artikuluan berariaz adierazitakoak dira.



### Itsutxakurrak eta laguntza-txakurrak

- Sartzeko lehentasuna. Ez daude kopuruaren edo ordutegiaren mugei loturik.



### Haur-kotxeak eta -aulkiak

- Gehienez: 1. Lehentasunezko sarrera: gurpil-aulkia.
- Sarrera, ahal dela, horretarako gaitutako atetik. Arduradunak helduta eraman behar du bidaia osoan.
- Jaisteko, oro har, horretarako gaitutako atea erabiliko da. Lehenik eramailea irtengo da eta gero haur-kotxea, harrapatzerik gerta ez dadin.



### Fardelak

- Gehieneko neurria: 100x60x25 cm.



### Bizikletak

- Bizikletak eskuko fardeltzat hartzen dira. Pertsona bakoitzak bizikleta bat eramatea onartzen da, gehienez ere bat ibilgailuko.
- Gurpil-aulkiek eta haur-kotxe eta -aulkiek sartzeko eta erdiko plataforma okupatzeko lehentasuna dute.